

**ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA UNIBERTSITATE
MINISTERIOAREN "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUAK"
2024ko DEIALDIARI LOTUTAKO EHUn DOKTOREAK
PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO KONTRATAZIO
DEIALDI APARTEKOA (FPI 2025 APARTEKOA)**

Onuradunen behin betiko ebazpena

Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren 2024ko "Ezagutza sortzeko proiektuak" izeneko deialdian, UPV/EHUn, emandako laguntzei lotutako ikertzaileak prestatzeko deialdi apartekoa argitaratzen duen Ikerketako errektoreordearen 2026ko urtarrilaren 30eko Ebazpenarekin bat etorriz, eta 2026ko martxoaren 10ean argitaratutako behin-behineko ebazpenari alegazioak egiteko epea amaituta, eta alegaziorik jaso ez denez, Ikerketa Errektoreordetzak honako hau agintzen du:

UPV/EHUren web-orrian **argitaratzea I. ERANSKINEAN zerrendatutako onuradunei** doktoratu aurreko ikertzaileak prestatzeko **laguntzak emateko behin betiko ebazpena**.

EZAGUTZA SORTZEKO PROIEKTUETARAKO ETA PROIEKTU HORIEI LOTUTAKO DOKTORATU AURREKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO JARDUKETETARAKO 2024ko deialdiari dagozkion laguntzak ematen dituen AGINDUAN xedatutakoaren ondorioetarako (deialdi hori 2025eko abenduaren 9an argitaratu zen Estatuko Ikerketa Agentziaren-EIA webgunean), kontratuak formalizatu eta sailetan, institutuetan edo zentroetan sartzeko epea 6 hilabetekoa izango da, gehienez ere, EIAk argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, betiere hilaren 1ean hasita.

Laguntzak emateko hasierako baldintzak eta horiek gauzatzeko epeak aldatzeko, laguntza eman duen organoak baimena eman beharko du, egoki iritzitako txostenak eskatzeko eta emakidaren baldintzak aldatzeko, beste ebazpen baten bidez.

Argitalpen horrek, UPV/EHUren webgunean, 39/2015 Legearen 45. artikuluaaren arabera egindako jakinarazpen-ondorioak izango ditu.

Administrazio-bidea amaitzen duen behin betiko ebazpen honen aurka, deialdiaren 8.4 artikuluan jasotako aurkaratze-bideak jarri ahal izango dira.

Leioan, 2026ko martxoaren 26a.

IKERKETARAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA

Ikerketa Errektoreordetza